

Lurrazpiko pasabide irekia Urnietan

Tren geltokian herritar guztiei irekitako lurrazpiko pasabidea eta igogailua eraikiko dituzte, Udalaren eta Adifen arteko negoziazio bileren ondorioz / 3



Julen Gabirondo, joan zen igandean Asteasun jokatu zen finalean. AIURRI

Ordutebeko saio gogorra Gipuzkoako sega txapelketan

Gabirondo urnietarra txapeldun-orde da, partaide guztiek beroagatik leher eginda amaitu zuten finalean / 12

Uztailaren 24ra bitarte, 3x3 Street basket txapelketa Andoaingo Gaztetxean / 13

Uztailaren 16an hasi eta abuztuaren 5era bitarte, Goiburuko binakako pala txapelketa / 13

Zinema kalean, ostegun honetan "Batman Lego" filma euskaraz Zumea plazan / 14

Karrikako jaiak ostiral honetan hasiko dira, txupinazoarekin eta sardin janarekin / 11



Seinalizazio ona izatea, ezinbestekoa erromesentzat

Udan biderkatu egiten da Andoain eta Urnieta zeharkatzen duen erromes kopurua / 8-10



Lurrazpiko pasabide irekia iragarri du Adifek

Urnietako geltokiko irisgarritasuna hobetzeko bi milioi euroko partida bideratuko da, Adifek ohar bidez iragarri duenez. Irailean hasiko dira lanak, 2019ko ekainerako amaitzeko aurreikuspenarekin. Pasabidea irekia izango dela zehaztu dute



Lurrazpiko pasabidea eraikitzeko ia bi milioi euroko aurrekontua iragarri du Adifek. Pasabidea, gainera, irekia izango da. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak poza agertu du albistearrekin, urte hasieran egindako ekarpenak kontutan hartu dituztela ikusi dutelako. Izan ere, Adifen hasierako asmoa tren geltokiaren bi aldeak itxitura batekin bereiztea izan zen. Horrek, noski, kalte nabarmena eragingo zuen urnietarren artean. Hasierako egitasmo horren aurrean, Udalak eta Eusko Jaurlaritzak agerraldi bateratua egin zuten, bereziki Urnietako tren geltokiaren lurrazpiko pasabidea urnietar guztiei irekia izan zedin eskatzeko.

Berriki Adifek oharra zabaldu du, hainbat aldaketa iragarritz. Eta bertan adierazten denagatik, Udalaren eta Jaurlaritzaren eskaerei jaramon egin diete. Gauzak horrela, lurrazpiko pasabidea publikoa izango da, baita pasabidearen osagarri izango diren eskailerak eta igogailua ere.

Udalaren poza egitasmo berriarekin

Udalak, aste honetan zabaldu duen oharren bidez, poza ager-

tu du: "Udalak egindako eskariari erantzun zaio, geltokiaren inguruko auzoak lotuta geratuz". Azken hilabeteotan Adifen eta

Udalaren artean bilera ezberdinak izan dira. Horren fruitu dira lanak burutzeko iragarri dituzten neurri berriak.



Segurado zinegotzia, Aiz Jaurlaritzako sailburuordea eta Pagola alkatea.

Hasierako egitasmoari kritika

Urtarrilean Urnietako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Adif erakundearen hasierako egitasmoari kritika egin zioten, trenbidearen bi aldeak itxitura batekin moztu nahi zituztelako. Adifek, zorionez, Udalaren ekarpenak kontutan hartu ditu.



Bost metroko aldea gainditzen da, igogailuari esker. AIURRI

Urraka eta Azkorte arteko mugikortasuna hobetuko da

Aurreko astetik martxan dago igogailu berria, bi auzuneen arteko igarobidea errazteko ipini dutena

Erredakzioa URNIETA

"Nabarmen hobetzen da irisgarritasuna Urraka aldean. Igogailua herritar guztientzat izango da onuragarria, baina bereziki adineko jendearentzat eta mugikortasun urriko pertsonentzat", Mikel Pagola alkatea joan zen astean zabalduko zerbitzu berriaren abantailak azaldu zituen, Urraka eta Azkorte arteko igarobidea erraztera datorrena.

Izan ere, igogailua martxan jartzearekin, parez pare dauden bi biziguneen artean dagoen 5 metroko aldea gaindituko da. Adineko jendea, haur txikien gurasoak edota mugikortasun arazoak dituztenak izango dira onuradun nagusiak.

Hobekuntza osagarriak

Urnietako Udalak irisgarritasuna hobetzeko hobekuntza osa-



Segurado eta Pagola Udal ordezkariak, igogailuaren irekiera ekitaldian. UDALA

garriak iragarri ditu. Azkorte kalean igogailura doan espaloia zabaldu egingo dute eta, bestetik, argiteria sistema ere hobetu egingo dute.

Alkate txikiak prest

Udalak aditzera eman ditu Sanmielelan Alkate txiki lanetan arituko diren neska-mutilaren izen-abizenak. Jaietan postu sinboliko hori Lide Labaka Salas eta Telmo Rioja Pasaban gaztetxoek beteko dute. Haurren egunean nabarmenduko da, bereziki, euren lana. Argazkian, iazko Alkate txikiak udaletxeko balkoitik suzuria pizteko unean.



KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

JON ESKUDERO PILOTARIA

Kontsejupea, eskola onena

Garai batean bai, makina bat kilometro egiten zuen gure aitak aurrera eta atzera kotxean, bi semeetako bat hartu eta rantxerak kantatuz, pilota partidetarako bidean. Ordea, aspaldian dezente utzia zion gu ikusteari, ilusioa galduta edo. Horregatik, ezusteko polita eman zigun Kontsejupeko finaletara agertu zenean. Bi semeak elkarren aurka izaki, ardiak zaindu baino nahiago izango zuen finala ikusi. Pilotalekuaren aurre-aurrean jarri zen pilota hotsak gertutik entzuteko, eta jaialdiko lehen partidari, zur eta lur geratu omen zen pilotari batekin: Nora Mendizabalekin. Sekula ikusi gabea omen zuen zutenean neska bat pilotan, eta hark adina poz ez omen zion ezertxok eman egun hartan. Ezta gerora egindako bazkari latzak ere.

Jaialdiko bigarren neurketa zen gurea: Arruti eta Eskudero II.a Gomez eta Eskudero I.aren artekoa. Gogor joan zen finala, batez ere bezperan kostatuta zitzaien etxera erretiratzea. Txapela burura eramanda eta anaiari irabazi nionez, irribarrea nuen ahoan, baina uso demonio kendu zitzaidan. Izan ere, aitak

INORK USTE DUENA BAINO ESKOLA HOBEA LITZATEKE, BAI BIZITZARAKO ETA BAI PILOTARAKO

esan zigun ez zuela tanto bakar bat bera ere ikusi. 95 urteko gizon bat hurbildu omen zitzaion ondora, eta haren hitzak interesgarriagoak izango ziren gure pilotakadak baino. Gizon hark, abizenek Erkizia, izugarri ondo jokatzeko omen zuen gaztetan Kontsejupean, eta Atano

handiaren kontra apustu bat egitetik gertu izan zela esan zion. Hitzartuta zegoela guztia, ziur zegoela irabaziko zuela, baina Gerra garaia zapuztu zuela hainbeste desiratutako apustua.

Beste garai batzuk ziren, baina orain baino indar gehiago zuen Kontsejupean pilotan aritzeak. Argazkietatik soilik eman dezaket iritzia, baina egunero lasterka ibiltzen omen ziren frontoian nork lehenengo tokia hartuko. Duela hogeitau urte ere, antzeko ibiltzen ginen gu eskolatik aterata, arratsalderoko plana izaten genuen eta bertan jolastea. Orain, berriz, askotan ikusten dut hutsik Udaletxe azpia. Garrantzitsuago bihurtu da ingeles, judo, pilates eta futbol klaseetara joatea. Oraindik ez dakit zer den guraso izatea, baina inork uste duena baino eskola hobea litzateke Kontsejupea, bai bizitzarako eta bai pilotarako.

POSTONTZIA

Kartzela politikaren alderdi krudela, beste behin ere

ANDOINGO EH BILDU

Joan den igandean, uztailearen 8an, Loli Mendikute Garmendia andoaindarra zendu zen. Ainhoa Ozaeta Mendikute euskal preso politikaren ama zen Loli, eta galera ororen antzera, honakoak ere hutsunea utzi du bere inguru guztian. Ezer baino lehen doakie gure doluminik sentikorrena senide eta lagun guztiei.

Esan bezala, Ainhoaren ama zen Loli. Ainhoa 2008ko maiatzean atxilotu zuten Bordelen, Estatu frantsesean, eta lau egun atxilotua eta inkomunikatuta eman ostean, Paris ondoan dagoen Fleury-Merogis espetxean kartzelaratu zuten, Andoaindik 930 kilometrotara. Zortzi urte eman zituen bertan, baldintza kaskarretan,

eta 2016ko abuztuan, bere aurkako epaiketa gauzatu eta kondena ezarri ondoren, Reau-ko espetxean giltzaperatu zuten. Han dago orduz geroztik. 22 urteko kondena jaso zuen Ainhoak, eta aurten, duela gutxi hainbat bizilagunek gogoratu zuten bezala, 10 urte bete ditu espetxean.

Loliren heriotzak, berriz ere, espetxe politikaren krudeltasuna agerian jarri digu; alegia, ama behar bezala agurtzeko aukerarik ematen ez duen espetxe politika, hain zuzen ere. Odoluste ekonomikoa izateaz gain, ehunka kilometro eta ordu behar dira Ainhoa bisitatzeko, eta amaren gaixotasuna tarteko, Ainhoak ezin izan du azken aspaldian bere ama ikusi. Dispersioarekin

amaitzea lehenetsia izan behar du giza eskubideen alde lanean dihardugun guztiontzat. Borondate politikoa baldin badago, epe laburrean bukatu daiteke egoera bidegabe honekin. Bien bitartean, herri dinamikaren bitartez, gai hau lehenetsunaren agendan egoteko lan egingo dugu. Izan ere, dispersioarekin amaitzea giza eskubideen errespetuari zor zaion gutxienezkoa da. Presoak etxeratzea, bakea eta bizikidetzaren lortzeko beharrezko urratsa da.

Andoaingo EH Bildutik, behin-betiko bake eszenatoki bat finkatzeko helburuaren alde lanean jarraituko dugu. Eta presoaren gaia konponbidean jarri dadin beharrezkoak diren ekimenak sustatuko ditugu.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ ALJATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOINGO UDALA Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

GIPIZKOAKO Foru Aldundia Hilekoa Beelintzamerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: BABESLEAK: AIURRIKO harpidedunak ezinbestekoak dira.

2017 Bitkarn

PRENTSA BULEGOTIK

Lurraldebus zerbitzua berritzeko egitasmoa

ALDUNDIKO MUGIKORTASUN ETA LURRALDE ANTOLAKETA SAILEKO PRENTSA OHARRA

Erredakzioa ANDOAIN

Uztailaren 10ean Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuen kontseiluak Lurralde antolaketa departamentuaren egitasmoari onespina eman zion, Lurraldebusko linea eta zerbitzu berriak ezartzeko. Aldundiak oharraren atarian adierazi bezala, "30 urteren ondoren, Lurraldebusko kontzesio berriak –Gipuzkoan berri gabe geratzen zen bakarrak– hainbat hobekuntza egin ditu. Berrikuntza horien artean daude Tolosa eta Donostia arteko eta Lasarte-Oria eta Donostia arteko zuzeneko zerbitzu gehiago eskaintzea, esparruko udalerrien eta Ospitaleko zonaren arteko lotura hobetzea, igandean eta jaiegunetan zerbitzu berriak eskaintzea, unibertsitateetara, lantokietara eta ikastetxeetara joateko puntako orduetan zerbitzuak indartzea, eta udan gaueko ordutegiak zabaltzea, eta festetarako edo kultura, kirol eta ospakizun



Lurraldebusen eskaintza berrituko dute. Tartean, Buruntzaldeko zerbitzua.

jakinetarako errefortzu zehatzak ezartzea". Marisol Garmendia Mugikortasuneko diputatuak zerbitzuaren hobekuntzak azpimarratu zituen: "Onartutako proiektuan garraio publikoko

zerbitzu gehiago eskaintzen dira, herritarrek gehien eskatutako ibilbideetan zerbitzu hobe ematen du, eta Tolosarako eta Buruntzalderako mugikortasun-eredu

iraunkorrako baterako bidean aurrerapausoa da".

Onartu dituzten hobekuntzak datu bidez

"Tolosa-Andoain-Lasarte-Oria-Donostia linean egunero eskainiko diren zerbitzuen kopurua 162 izatetik 173 izatera igaroko da. Tolosako linean, esaterako, asteburuetan 53 zerbitzu berri eskainiko dira, larunbatetan 27 eta igandean 26. Urumearen ardatzean gaueko linea berri bat sortu da, 26 zerbitzu eskainiz. Linea horrek, ostiral, larunbat eta igande guztietan, zerbitzua eskainiko du Hernanira, Astigarragara, Urnietara eta Andoainera. Aldi berean, N-1eko gaueko linean 14 zerbitzu berri ipiniko dira asteburuetan. Gainera, Ospitaleen zonarekin lotura bermatuko da, baita asteburuetan ere, 46 zerbitzu berriren bitartez".

Kontzesio berrirako lehiaketa publikoa

Aipatutako zerbitzu guztiak kontzesio berri baten barne sartuko dira. Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak egitasmoa onartu ondoren, lehiaketa publiko bidez haiek esleitzeko lizitazio-tramiteak hasiko dira.

HAU ERE BADUGU!

Futbol jokalarien hizkuntza eta hizkera

Aste honetako Aiurriko iritzi-emalea Berriako kazetaria da, eta Errealaren kronikak idatzi ohi ditu. Mundiala igaro eta berehala, Odriozola Donostiako jokalaria Real Madridek fitxatu duela iragarri dute. Jokalariak agurrean gaztelaniaz igorri zuen agurreko gutuna, eta horrek zeresana eman du sare sozialetan dabiltzan errealtza eta kirolzaleen artean. Jon Eskuderen txioak zabalpen handia izan zuen Twitter sarean, hizkuntza eta hizkera hizpide zituena.

Euskaraldia, deialdia Urnietan

Euskararen erabilera sustatzeko Euskaraldia ekimena martxan jarriko dute azaroaren 23tik abenduaren 3ra, Euskal Herri osoan. Joan zen asteartean batzar irekia egin zuten Urnietan, ekimenari buruzko informazioa emateko. Lanean hasteko Urnietako Euskaraldiaren batzordea sortzeko deialdia luzatu dute ostegun honetarako (uztailak 12), 19:30ean hasita Lekaio kultur etxeko areto nagusian. Herriko elkarteetako ordezkariak eta eragileak gonbidatu dituzte bileran parte hartzera.

DATUA

Sargori, hainbat egunez

Joan zen asteburuan eta astearen hasieran sargori egin zuen, bero handiko sentazioa sortuz. Imanol Fernandez @MeteoAndoain twitter erabiltzaileak Plazaolako eguraldi datuak argitaratu ditu, sargori horri tenperatura-graduak ipiniz. Larunbatean, esaterako, 28-29 C-koa izan zen. Datu berbera igandean. Eta astelehenean aldiz, koska bat gorago: 30-31 C. Udaberriari hasi eta udan sartu arte eguraldi kaskarra izan bada ere, uztailako lehen egunetan uda giroko eguraldia nagusitzen ari da. Aurreikuspen okerrenak zabaldu ziren udaren atarian. Zorionez, ordea, uda beteko giroa bertan da.

GORA ETA BEHERA

**Andoaingo merkatarien logotipo eta lema berria**

Naiara Lasarte andoaindarrarena da Salkinek aurkeztu duen logotipo eta lema berria. "Bertatik bertara" esaldiarekin, Andoaingo merkataritzak eskaintzen duen gertutasuna nabarmendu nahi izan dute. Aurreko Aiurri logotipoa Naiara Lasarte eta Juanan Lazkanoren zela argitaratu zen, baina datua ez da zuzena. Diseinu lanaren egilea Naiara Lasarte da.





Alberto Agirre abesbatza San Martin elizaren koroan, grabazio saioan. AIURRI

Oroimena eta teknologia

Adineko pertsonen artean errealitate birtuala jorratzen duen Oroï enpresa eta Alberto Agirre abesbatza elkarlanean aritu dira egunotan. Zenbait abesti grabatu dituzte San Martin elizako koroan, latinezkoak zein euskarazkoak

Xabier Lasa ANDOAIN

Errealitate birtualaren kanala da Oroï, adinez nagusi diren pertsonen entretenimendua eta esperientzia kognitiboak lortzea helburu duena. Horretarako, betaurrekoak eta bestelako gailuak erabiltzen dituzte. Gailu horiek irudiz eta soinuak elikatzen dituzte, makina bat gai jorratuz; hala nola, musika kontzertuak, nekazal mundua, bidaiak, paisaiak, sukaldea, antzerkia, zinema... Era guztietako ikuskizun horiek 360 gradutan bizi litezke, errealitate birtualaren bitartez. Era horretan, gailu horien erabiltzaileei, bizipen eta emozio pertsonal berezi-bereziak bizitzeko aukera eskaintzen zaie.

Egun bogan dauden telebista plataformak horietako bat sortu du Oroï enpresak, eta hileroko gai berriekin hornitzen du. Hain

zuzen, plataforma horretan zabalatzeko asmoz grabatu zuten Alberto Agirrek joan den astelehenean San Martin elizan eskaini zuen kontzertua. Abesbatza Jose Luis Etxeberriak zuzendu zuen, eta Josean Pascual organo jotzailearen laguntzarekin aritu zen. Errepertorioa euskarazko eta latinezko abestiekin osatu dute. Batik bat, elizan abesten direnak abestu zituzten.

Iñaki Aranburu eta Jorge Maylin, Oroï enpresako kideek, kamara berezia erabili zuten

360 GRADUKO BIDEO GRABAKETA EGIN ZUTEN ANDOAINEN, ZAHAR EGOITZATAN ESKAINTZEKO

Alberto Agirre abesbatzaren emanaldia grabatzeko. 360 gradu grabatzen dituen kamera da, sei pantaila dituen.



Iñaki Aranburu eta Jorge Maylin Oroï enpresako kideak. AIURRI

horrela, grabazio bikaina lortzeko, punta-puntako teknologiaz gain, beharrezkoak ziren gainerako osagarri guztiak bildu zituzten: eskarmentu handiko abesbatza zein organo jotzailea, kalitate handiko organoa eta ahotsak fin-fin jasotzen dituen leku paregabea.

Pertsona nagusien premiei erantzuteko asmoa

Premia batetik abiatu ziren Oroï enpresako kideak, Jorge Maylinek adierazi duenez: “Zahar etxeetara sartu orduko identifika daiteke bertan bizi direnek dituzten mugikortasun arazoak erresidentzietatik aterata eta edonora joateko, eta are gehiago, emozioak sustatzeko esperientziak bizi ahal izateko. Bada, errealitate birtualaren bidez, adineko horrek egoitzan biziko ez litzuzkeen esperientziak, errealitateak, lekuak, soinuak... aurrez aurre eduki ahal izateko teknologia garatzen saiatu gara. Begietan edo belarrietan jartzen duen tresneriak panoramika osoa eskaintzen dio erabiltzaileari. Mundu berri bat irekitzen zaio, aulkitik altxa gabe”.

Praktikan jarri den sistema

Zahar egoitzetan poliki-poliki ezartzen ari den aplikazioa dela adierazi du Iñaki Aranburuk: “Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako zenbait egoitzetan praktikan jarri da, Katalunian ere bagabiltza, eta erreakzio ezin hobekak jaso ditugu; bertako profesionalak (psikologoak, terapeutak...) adierazi digutenez, errealitate birtualaren erabilera erabiltzaileen ongizate emo-

zionalen eragiteko tresna baliagarria da”.

Entretenimendurako ez ezik, memoria, arreta eta beste zenbait funtzio kognitibo lantzeko primerako tresna da. Adibidez, oso lagungarria da oroimena pizteko. Erremiszentziaren teoriaraino oinarritzen baita, begiek ikusten duten horrek iragane-ko oroitzapenetara eramaten zaituela, alegia.

Maylinen hitzetan. “Zahar egoitzetako profesionalentzat ere gailuok lagungarri dira, erabiltzaileen biografiari buruz ez zekizkiten hainbat atal azaleratu daitezkeelako. Adibidez, erabiltzaile bati mendi paisaiak erakutsiz iraganean artzaina izan zela jakin zuten; beste batekin, Aquariumari buruzko bideoa erakusteari esker arrantzan munduan ibili zela...”.

Musikaren indar emozionala

Musika tradizionala grabatzeko interes berezia zeukan Oroï enpresak, eta horrexegatik jo dute Alberto Agirre abesbatzaren gurekin. Maylinek azaldu du horren zergatia: “Zahar egoitzetako profesionalen eskaerari erantzun nahi izan diogu. Adin nagusiko jende askok oso gogoko ditu iraganean mezetan eta entzuten eta abesten zituenak”.

Musikarekin oso gauza bitxia gertatzen da adineko jende askorekin, Aranburuk gaineratu duenez: “Dementzia sakona eduki arren eta koilara edo sardeska eskuez hartu ezinik bizi arren, abesti bat entzun orduko gauza dira abesten has- teko, letra buruan gordeta daukatela erakutsiz. Memoria pertsonala biziki selektiboa eta apatsua da”.

Teknologia berriak eta adin nagusikoak uztar ezinak direla dioen ustea faltsua dela frogatu du teknika berriak. Errealitate birtuala erabiliz, eta entretenimenduari eta mundu emozionalaren arloak landuz, iraultza txikia eraman dute ezinduta bizi diren adin nagusien bizitzara.

MEMORIARI LOTURIKO GAIKOTASUN KASUETAN MUSIKAK INDAR EMOZIONAL HANDIA DU



Burdina taldeko kideek Amasako hiru karobi berreskuratzeari ekin diote. AIURRI

Berreskuratze lanetan tinko

Burdina taldeak ezagutzera eman ditu aurtan aurrera eramango dituen egitasmoak. Bestalde, etorkizunera begira landu nahi duen haizeolen gaia hizpide hartu zuten hitzaldi batean

Xabier Lasa ANDOAIN

Amasa-Villabonako Udalarekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz, Aranerrekand dauden hiru karobi berreskuratzeari ekin diote. Berriki Musturi-azpi baserri ondoko karobia txukundu dute, eta hurrena Floreaga eta Etzezarretakoei helduko diote. Azken helburua, Amasako ondare historikoa berreskuratzea, eta jendeari jakinarazteko karobien ibilbidea osatzea izango da, Amasa eta Villabona elkartu zireneko 400. urteurre-

naren ospakizunen baitan irekitzea espero dutena.

Andoainen, Pagamendiko Karlisten garaiko gotorlekuaren berreskuratzearen bigarren fasea jarriko dute abian. Eta bestalde, Ortzakako karobia martxan jarriko dute, aurreko urtetan egin moduan. Leitzarango bailaran, zepadien bila jardungo dute, haizeolen aztarnak topatzeko asmoz.

Elduainen, Allani, Goikoetxea, Kamioetxe, Gorrane eta Sales karobiekin eta Errotazar erro-

tarekin jarraituko dute. Berastegin, garbitokia, iturburua eta aska biltzen zituen egitura bat berreskuratzen saiatuko dira. Zizurkilen, elurzulo bat izango dute jomugan.

Egitasmo zehatz horietaz gain, ondarearen mantenimenduari begira, herriz herri sinatuta dauzkaten hitzarmenei eutsiko diete.

Aranzadirekin hitzarmena

Burdina taldeak Aranzadi elkartearekin hitzarmena sinatu



Mertxe Urteagak uztailaren 3an eskaini zuen hitzaldia. AIURRI

Haizeolak Euskal Herrian

Mertxe Urteagak garrantzitsutzat jo zituen haizeolak, arkeologiaren euskal panoramaren ikuspuntutik: "Euskal Herriak, orohar, ez dauka mosaiko ikusgarrikerik ezta eliza erromanikorik ere. Bere ondare historikoa, batik bat, burdinarekin lotzen da. Historian atzera eginez gero, aro paleolitikoko kobazuloetako arte-lanetan aberatsa da Euskal Herria. Ondoren datozen Brontze, Burdin edo Erdi aroan nahiko oinarritzakoa da utzitako ondarea. Batik bat Ekialde Hurbileko herrialdeen, zeltiarren edo erromatarren kulturekin alderatzen badugu".

Gipuzkoako Foru Aldundiko arkeologia saileko arduradunak Julio Caro Baroja antropologoaren hausnarketa ekarri zuen gogora: "Geure kultura eta nortasuna ikusteko modu berezia izan behar genuela adierazi zigun. *Homo faber* deitzen zion euskaldunari; gizaki fabrikatzailea izan zela esan nahi zuen, batik bat ontziolak garatu zituena, eta burdingintzaren sektorea izugarri landu zuena. Azpimarratzen zuenez, geure historia, nortasuna edota kultura ikertzeko eta interpretatzeko gakoetakoa horixe zen. Horrela bada, mosaikoen ikonografiaren edo idatzizko iturrien faltan, gure arbasoek zertan zebiltzan jakiteko geologia, mineralogia, metalurgia, kimika, fisika edota arkeologia erabiltzera behartuta gaude".

du, elkarlanean jarraitzeko ondare kultura babesteko xedez. Artean, bi elkarrekin egitasmo mordoak jorratu izan dute elkarrekin: Atxular eta Pagamendiko karlisten garaiko gotorlekuak, Olazar, Plazaola eta Mustarreko haizeolak eta burdinolak; Ulizar eta Artola Bordako kobazuloak...

Haizeolak, euskaldunen aitzineko industria

Mertxe Urteaga Gipuzkoako Foru Aldundiko arkeologia saileko arduradunak hitzaldia es-

kaini zuen joan den astean, Amama tabernaren bilera gelan.

Haizeolen ikerketa arkeologikoa indar handia ari da hartzen azken aldiari hantzen egin diren aurkikuntzei esker, eta Burdina elkarteak kideek ere gaian sakontzeko interesa azaldu dute. Haizeolak, erromatarren garaian zein erdi aroan mendi parajeetan burdina lortzeko asmoz eraiki zen industria txikia izan zen. Haizea zuen oinarri haizeolen prozesuak, hauspoen bidez lortzen zena.



FRANTZIAKO TOURRA
AIURRI.EUS | **@aiurri**





Nazario Maiz Urigain etxearen atarian, Udal langileek maskor handia ipini zuten goizean bertan. Uztailaren 3az geroztik informazio gunearen kanpoaldea apaintzen du maskorrak. AIURRI

Andoain Erromes bidean

Andoaingo La Salle-Berrozpeko fraide Nazario Maiz Santiagora doan bide ezagunaren simboloa zabaltzen dabil azken urteetan. Andoainen berak egindako 7 maskor ipini ditu, eta denera 150etik gora erromes bide osoan

Xabier Lasa ANDOAIN

Erromesak seinaleak behar beharrezkoak ditu, ezezaguna zaion Donejakue ibilbidean aurrera egiteko. Beterri-Buruntzatik barrena igarotzen da "Barnealdeko ibilbidea". Bidaiariak

Gipuzkoako ibilbidean dagoen seinaleztapen ona eskertu ohi dute. Adibide onena Terueleko Santiago Bideko adiskideen elkarteko Andres Ruiz ordezkariaren adierazpena da: "Baionatik Irunera bitarte oso gaizki

dago. Ez dago ia seinalerik. Irundik hona, aldiz, oso ondo seinalizatuta dago". Geziak eta maskorrak jartzeko lana tokian tokiko eragileei dagokie, eta Andoainen Nazario Maizek urteak daramatza langintza horre-

tan. Handik eta hemendik egiten dizkioten eskaerei erantzuten ahalegintzen da eta, zenbatzen hasita, orora 150 maskor inguru egin ditu. Horietatik guztietatik 7 Andoaingo ibilbidean aurki daitezke. Maskorrak, geziekin batera, ibilbidean aurrera egiteko seinaleak dira. Azkena, uztailaren 3an ipini zuen Urigain etxearen atariko belardian. Guztien artetik handiena da, eta instalakuntzarako Udal teknikariek garabiaren laguntza behar izan zuten. Gainerako seirak Tolosako norabidean aurki daitezke. Hurrenez hurren: La Salle ikastetxearen horman (Erroitx Kalea), Bordatxiki etxeke sarre-ran (Elizondo etxeari itsatsia); Santa Krutz ermitan (Kale Nagusia); Olajauna etxean eta Maindi iturriaren gainean (Zumea kalea) eta Sorabillako San Martin elizan.

Barnealdeko bidea, lau etapa Gipuzkoan barrena

Andoaindik igarotzen den Donejakue bidea "Barrualdeko bidea" bezala ezagutzen da. Irun eta Hernani artean igarotzen da lehen etapa; bigarrena Hernanitik Tolosara doa, Andoaindik barrena igaroz. Bidanin amaitzen da hirugarrena, eta Zerainen laugarrena. Hortik aurrera, Arabarantz doa, Aizkorriko naturguneetik pasa eta gero.

Gaur gaurkoz, erromes kopuru handiena hartzen duena "Bide frantziarra" da.

SANTIAGO BIDEKO BARRUALDEKO BIDEA IRUNEN HASTEN DA, BIGARREN ETAPA BERTATIK IGAROZ

Nazario Maiz eskulturgilearen maskorak Andoainen barrena



La Salle Berrozpe ikastetxea

Urnietatik etorrira, Erroitz kalean gora erromesek Andoaingo lehen maskorra topatuko dute, aterpetxearen parean.



Bordatxiki etxearen ataria

Elizondo tabernaren atzealdean kokatuta dago, La Salle Berrozpe ikastetxearen sarbide nagusiaren alboan.



Santa Krutz eliza

Kale Nagusian behera, Maindi iturriko norabidean, ibiltariak ezker aldean topatuko du maskorra.



Olajauna etxea

Zumea kalean, parez pare, bi maskor aukitzen dira. Olajauna etxearen gaikaldean dago lehena.



Maindi iturria

Guipuzcoano eraikinaren saihetsean eta Maindi iturriaren gaikaldean aurkitzen da Zumea kaleko bigarren maskorra.



Sorabillako San Martin eliza

Sorabillako elizaren sarbide nagusian dago, erromesentzat babesleku den toki lasai bezain ederrean.

Uda honetako jaiak aiurri.eus webgunean



Karrikako jaiak asteburu honetan



Etxeberrietako jaiak uztailaren amaieran




Goiburuko festak abuztuaren hasieran

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



"Seinaleztapen ona egotea funtsezkoa da"

 Teruel probintziako Andorra herriko erromes elkarteko kide da Andres Ruiz, eta barnealdeko ibilbidea osatzen ari da egunotan. Astelehen goizean Goikoplazatik Tolosa aldera penatuta alde egin zuen, San Martin eliza itxita topatu zuelako

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Goikoplazako eskilaratan argazkia ateratzeko prest zegoen. Aurrean, argazkia ateratzeko lanetan, Andoaingo neska gazte bat. Atzean, San Martin elizaren kanpoaldea. Kanpandorra ere enkuadorean atera nahi zuela eta, estuasunean ipini zuen gaztea. Bertatik igarotzen ari zen kazetari honi kamara eman, eta horrelaxe sortu zen erromesarekin hizketalditxoa. Ilusioa egin zion kazetari bat galdeketan hasteak, elkarrizketa argitaratzean kopia bidaltzeko erretgutuz.

Andoainera iritsi zara, nor zaitugu?

Teruel probintziako Andorra herrikoa naiz. Andres Ruiz Escartin izena dut. Baionatik abiatu nintzen Santiago bidearen barnealdeko bidea osatzeko helburuarekin. Andorrako Santiago bideko lagunak elkarteko kide naiz, eta ibilbide berriak ezagutzeko joera dugu. Bide honetatik ez da hainbeste jende igarotzen, eta sustapenean lagundu nahi dut. Miranda aldekoek lan handia egin dute, eta nire aletxoa ere jarri nahiko nuke.

Santiago bidea maitatzeaz gain, ondo ezagutzen duzun horietakoa zara, beraz.

Bai, zaletu amorratua naiz. Esan dizudan bezala, nire herriko

elkarteko kide naiz. San Macario izena du elkarrekin, eta Castelló-Aragoi behea ibilbidearen alde lanean ari gara. Beste ibilbideen alde ere aritzen gara, ikusten duzunez.

Zer da zuretzat Santiago bidea?

Askatasuna, lehenik eta behin. Jendearekin harremanetan jartzeko aukera izatea, presak jota ibili gabe bizitzea, bidean topatzen duzun jende guztiarekin hitz egin ahal izatea, herriz herri topatzen ditudan bizilagunei egun on edo diosala egitea, elizak deskubritzea eta bertan ikusmiran geratzea...

San Martin Tours eliza, ordea, itxita topatu dut. Atsekabetuta nago, irekita egon izan balitz elizaren barnealdea ezagutu eta bertan atsedean hartu ahal izango nuelako. Tira, ez da posible izan eta bidean topatzen duguna onartu beharra dago.

Hitz gutxitan, txoko berriak eta jendea ezagutzea magikoa da. Kultura ezberdinak barneratzeko aukera ematen dit niri.

Zer nolakoa da barnealdeko ibilbidea zu bezalako eskarmentudun erromesarentzat?

Baionatik Irunera bitarte oso gaizki dago. Ez dago ia seinalerik. Irundik hona, aldiz, oso ondo seinalizatuta dago. Atzokoan Irun-Hernani etapa egin nuen.

Oso gogorra da, baina zoragarria. Beterrri-Buruntzak badu bere xarma, nahiz eta ibilbidea asfaltozkoa izan.

Oso ondo dagoena seinaleztapena da. Bakarrik goazen erromesentzat garrantzia handikoa da. Pentsa, bakarrik goaz eta gezi horia ikustean animoak gora egiten du.

Zenbat kilometro egiten dituzu, batz beste?

Hogeit edo hogeita bost kilometro egin ohi ditut, egunaren arabera. Irun-Hernani tartea 25 kilometro dira, eta horixe izan zen atzokoan egin nuena. Malda handiak ditu, eta horri beroa gehituz gero, oso gogorra egiten da.

Aukeran, Hernanin lo egiteko aukera gehiago eskertuko nuke, baina tira. Andoainen jakin badakit ostatu hartzeko tokia badagoela, baina Hernanitik abiatu naizenez zuzenean Tolosaraino joateko asmoa dut.

Bidaia on.

Eskerrik asko!

"SANTIAGO BIDEAN ZEHAR TXOKO BERRIAK ETA JENDEA EZAGUTZEA MAGIKOA DA"



Andres Ruiz Escartin Teruel probintziako Andorra herriko biztanlea da. AIURRI

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Auzoko danborrada gaueko 22:00etan abiatuko da, larunbatean. Lehenago helduek afaria egingo dute Karrika elkartean. AIURRI

Karrika jaietan murgiltzear da

Ostiral arratsaldean hasi eta igandera bitarte Karrika auzoa jaietan murgilduko da. Zunba eta play-back saioak auzotar askoren gogokoak izaten dira, baita hitzordu gastronomikoak ere: Sardin jana, sagardo dastaketa eta paella jatea iragarri dituzte

Erredakzioa ANDOAIN

Igande eguerdian Karrika auzoan bertan bazkaltzeko aukera dago. Merke, gainera. Euro eta berrogeita hamar zentimoren truke paella dastatzeko aukera izango baita. Paella handiena Jai batzordeak egingo du. Ana Isabel Gaspar jai batzordeko kideak Aiurriri azaldu dionez, eskaera guztiari erantzuteko paella egiteko ontzi handiagoa erosi behar izan dute: "Auzo bazkaria egin ordez, Karrikan paella jatea antolatzen dugu. Eta auzotar ugari elkartzeko gara. Geroz eta gehiago, gainera. Hori dela eta, aurtun 80 razio egiteko ontzia

erosi dugu. Paella handi horrez gain, lehiaketara aurkezten diren 10-12 paella horiek ere auzotarrei eskainiko dizkiegu". Zer esanik ez dago jateko ez ezik parte hartzeko aukera izango dela. Antolatzaileak lehiakide bakoitzari oinarritzko osagaiak eskainiko dizkie: arroza, tipula, piperrak eta oilaskoa. Hortik aurrera, lehiakide bakoitzari egokiena iruditzen zaiona.

Ordu beretsuan, igandean ere, patata tortila lehiaketa antolatu dute eta bertatik ateratako pintxo guztiak jai girora hurbiltzen direnei dohainik eskainiko zaizkie. Esan bezala, igande eguer-

dian Karrikan bertan merke eta on bazkaltzeko aukera dago.

Zunba, play back saioa eta haur jolas berriak

Igande arratsaldeko dantza eta antzerki saioak aski ezagunak dira Andoain osoan. Jaietako azken eguna borobila izango da.

Larunbata aproposa izango da Andoaingo haurrentzat. Antolatzaileek iragarri dutenez, jolas berriak ekarriko dituzte. Besteak beste, ohe elastikoak.

Musikari dagokionez, ostiral gauean rock jaialdia iragarrita dago bertako eta kanpoko taldeen parte hartzearekin.

Hiru hitzordu, askoren artean



Sardin jana, Karrikako jaien hasierako hitzordu arrakastatsua.

Sardin jana Txorixo egosia eta pintxoak iragarri badituzte ere, jaien hasierako sardin janak auzotar asko jai gunera erakartzen ditu. Iluntzeko 20:30ean hasiko dira sardinak banatzen, eta gaueko 22:30ean rock kontzertuaren txanda iritsiko da.



Jai batzordeak eta lehiakideek egindako paellak dastatu ahal izango dira.

Paella lehiaketa "Karrikako masterchef-a aukeratuko dugu", adierazi dute jai egitarauan. Antolaketak oinarritzko osagaiak eskainiko dizkie lehiakideei. Hots, arroza, tipula, piperrak eta oilaskoa. Lehiaketa igandean hasiko da, eguerdiko 12:00tan.



Mus txapelketa larunbatean izango da, arratsaldeko 16:00tan hasita.

Mus txapelketa larunbatean Egitarauan nahasmena sortu da egunarekin, eta azkenean Jai batzordeak larunbatean antolatuko du mus txapelketa. 16:00tan hasiko da, eta bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Sariak daude lehen lau sailkatuentzat.

Sufrikarioa sega txapelketan

SEGA Igande eguerdian sargori zegoen Asteasuko Bulano baserrian. Ordubeteko lanaldia egin eta gero, Gipuzkoako sega txapelketako finalistek leher eginda amaitu zuten. Gabirondo txapeldun-orde izan zen

Erredakzioa ESKUALDEA Irudiak aski adierazgarriak dira. Beroa gogotik egiten zuela, baldintza horietan lan egitea oso neketsua izaten da. Fisikoki maila bikainean egonda ere, lehiak ataka estuan ipini zituen

lehiakide guztiak. Ordubeteko saioa amaituta, nahiko garbi zegoen garaipena Etxeberria eta Gabirondoren artean egongo zela, eta halaxe izan zen. Azkenean Etxeberria amasarrak etxeratu zuen txapela preziatua.

Horrenbestez, Gabirondo urnietarra txapeldun-orde izan zen.

- Azken emaitza:**
1. Jokin Etxeberria 2811 kilo.
 2. Julen Gabirondo 2752,5 kilo.
 3. Igor Esnaola 2623 kilo.



Finalean parte hartu zuten lau segalariak. Ezkerretik hasita Etxeberria txapelduna, Goikoetxea laugarrena, Gabirondo bigarrena eta Esnaola hirugarrena.

Julen Gabirondo urnietarra Gipuzkoako txapeldun-orde



Ordubeteko saioa egin zuten Gipuzkoako finalean.



Lanaldia amaituta neka-neka eginda amaitu zuen.



Epalea Gabirondoren lan taldeak bildutako belarra pisatzen.




Belar asko moztu bazuen ere, txapelak ihes egin zion.



Gorputza bere onera ekartzen lanak izan zituen Gabirondok.



Alai baina nekatuta, urnietarrak gisa horretan jaso zuen saria.



Besiberri mendira igotzeko aukera izango da uztailaren 31n. DEXCURSIO

Aigüestortes aldera uztailean, Euskaldunako mendizaleekin

MENDIZALETASUNA Uztailak 28tik 31ra zeharkaldi ezberdinak egingo dituzte. Izen ematea zabalik dago

Erredakzioa ANDOAIN

Euskalduna mendigoizale taldeak prest du uda honetako eskaintza, Piriniotan zehar izango dena. Lau egun horietan egingo dituzten irteerak eta egonaldiak jada lotu dituzte. Parte hartzeko baldintza bakarrenetako federatuta egotea da. Izena emateko

aukera zabalik izango da hurrengo uztailaren 24ra bitarte. Ibilbidearen xehetasun guztiak www.euskaldunamt.com webgunean aurki daitezke, eta informazio gehiagorako 943 59 22 32 telefono zenbakira deitzeko aukera dago (astelehenetik ostiralera, 20:00tik 21:00era).



Japoniako lagunak Ubitarten. EUSKALDUNA

Japoniako jokalarien bisitaldia, Donostia Cupen atarian

FUTBOLA Alebin eta infantil mailako jokalarientzat bereziki, Donostia Cup txapelketan parte hartzea esperientzia zirraragarria izaten da. Aurtengo edizioaren atarian, Euskalduna futbol taldeak harrera egin zion Japoniako Amanecer taldeari. Lagunarteko partida jokatu zuten Ubitarten. Donostia Cup txapelketan, bestalde, Urnietako eta Andoingo futbol zelaietan hainbat partida jokatu dira.



Astelehenean hasi zen saskibalo txapelketa Andoingo Gaztetxean. AIURRI

3x3 saski txapelketa Gaztetxean, uztailaren 24ra arte

SASKIBALOIA Joan zen astelehenean hasiera eman zioten edizio berriari, uda beteko giroarekin

Xabier Lasa ANDOAIN

Datorren uztailaren 24ra bitarte, arratsaldero saskibaloiaz gozatzeko aukera izango da Andoingo Gaztetxean. Dagoeneko ezaguna da 3x3 Street basket txapelketa, lagunarteko giroan Gaztetxearen atarian jokatzeko dena. 17:00tan hasi ohi dira par-

tidak eta ikusteko nahiz jokatzeko esperientzia polita izaten da. Besteak beste, Andoingo gazteen arteko harreman sarea indartzeko. Astelehen arratsaldean hasiera eman zioten txapelketari. Azken partidak uztailaren 24an jokatuko dira, txapelketaren amaierako festan.



AIURRI

Hitzordu bikoitza Goiburuko frontoian

PILOTA Datozen egunetan pilotazaleek hitzordu bikoitza izango dute San Esteban auzunean. Ostiral honetan Gaztetxe eskuz binakako finala jokatu da gaueko 22:00etik aurrera. Eta datorren astelehenean, uztailak 16, 18:00etatik aurrera Goiburuko pala

txapelketaren hirugarren edizioari hasiera emango diote. Binaka jokatzeko da, teniseko pilotarekin, eta partaideetako batek gutxienez andoainarra izan behar du. Finala San Esteban jaietan jokatu da, abuztuaren 5ean hain zuzen.



Belaunaldi ezberdinetako kirolariak biltzen dira saskibalo txapelketan. AIURRI

Zanpatuz elkartean irteera uztailean Toloño mendilerroa

MENDIZALETASUNA Uztailaren 28rako irteera antolatu dute, ibilbidean zehar Cruz del Castillo (1431 m.) igotzeko asmoarekin. 07:00tan irtengo dira Matxo paretik. Frontala edo linterna eramatea aholkatu dute. Interesa duenak Ikasminen edota Kantoin izena eman behar du, uztailaren 23a baino lehen.



Cruz del Castillo. MAPIO.NET

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 12

ANDOAIN Zinema kalean

Batman Lego, euskaraz.
22:00, Zumea plaza.

URNIETA Bilera

Urnietako Euskaraldiaren Batzordea sortzeko bilera irekia. Herriko elkarte eta eragile desberdinei gonbidapena luzatu zaie.

19:30, Lekaio.

OSTIRALA 13

ANDOAIN Karrika jaietan

19:00 Txupinazoa.
20:30 Sardin jana eta pintxoak.
22:30 Rock jaialdia: Pangea, WC Groves, Storm.
19:00, Karrika auzoa.

LARUNBATA 14

ANDOAIN Pilota txapelketa

Eskuz binaka, Gaztetxeko txapelketaren finala.
22:00, Goiburu.

ANDOAIN Karrika jaietan

10:00 Futbol txapelketa, haurrentzat.
11:00 Zumbalokura, erakustaldia.
12:00 Sagardo dastaketa.
12:30 Puzgarriak, apar festa.
16:00 Mus txapelketa.
16:30 Puzgarriak, apar festa.
20:00 Danborradaren afaria.
22:00 Danborrada auzoan barrena.
23:30 DJ Tristan. Pepino lehiaketa.
10:00, Karrika auzoa.



Play back saioan haurren, gazteen eta helduen parte hartzea izaten da.

ANDOAIN Play-back eta Zumba saioa Karrikako jaietan

Jaien bereizgarrietakoa bilakatu da play-back jaialdia. Azken urteetan, gainera, zaletu ugari dituen zumba erakustaldiarekin osatzen ari dira igande arratsaldea.

"Pobre de mi"rekin amaituko dira jaiak, 23:00ak aldera.

Uztailak 15, igandea. 18:30, Karrika.

IGANDEA 15

ANDOAIN Karrika jaietan

11:30 Meza Sorabillako elizan.
12:00 Marrazki lehiaketa.
12:00 Paella lehiaketa eta dastaketa.
12:30 Patata tortilla lehiaketa eta dastaketa.
18:30 Play back saioa.
19:30 Jumping, Zumba eta Kangoo.
20:30 Dantzaldia: DJ Tristan.
23:00 Azken traka eta jaien amaiera, "Pobre de mi"rekin.
11:30, Karrika auzoa.

ASTELEHENA 16

ANDOAIN Pala txapelketa


Lagunarteko binakako pala txapelketa. Abuztuaren 5a bitarte.
18:00, Goiburu.

OSTEGUNA 19

ANDOAIN Plenoa

Udalaren osoko ohiko batzaraldia. Uztailari dagokiona aurreratu egin dute.
19:00, Udaletxea.

ZINEMA

**ANDOAIN****ZINEMA KALEAN****Batman Lego**

Uztailak 12, osteguna:
22:00.
Zumea plaza.
Adi, ostegunarekin eskainiko dute.

Piratas del Caribe: La venganza de Salazar

Uztailak 20, ostirala:
22:00.
Goikoplazako frontoia. Javier Barmen aktore ezagunarekin.



SINOPSIS

Piratas del Caribe: La venganza de Salazar

Zuz.: Joachim Rønning, Espen Sandberg . Herr.: Estatu Batuak (2017). Iraupena: 129 minutu. Hizkuntza: Gaztelera.



Pirata itxurako mamuekin borrokan

Jack Sparrow kapitainak pirata eta, aldi berean, mamu itxura duen taldearen aurka borrokatu beharko du. Talde horren buru da Salazar kapitaina, Sparrow-ren etsaia dena, eta Bermudako Hirukietatik alde egin berria dena. Bere helburua begi bistan jartzeko pirata guztiak akabatzea da.

Bizirik irteteko modu bakararra du Sparrow kapitainak:

Poseidon jainkoaren hiruhortzetako makila aurkitzea. Makil hori duenak itsasoa kontrola dezake. Modu horretan soilik lor dezake Sparrow kapitainak Salazar eta haren taldea garaitzea.

Borroka horretan lagun izango ditu Carina Smyth astronomoa eta Henry Turner itsas soldadua. Bestalde, bidean aspaldiko laguna den Will Turner-ekin aurkituko da.

San Fermin giroko jaia

Joan zen uztailaren 6an Goazen Jolastera udaleku irekiko kideek San Fermin txikia ospatu zuten Goikoplazan. Begiraleak eta haurrak zuri-gorritz jantzita, oinezkoen begiradan irudi ikusgarria sortzen zen. Udako aisialdiko lehen txanda ostiral honetan amaituko da, eta datorren astelehenean ekingo diote bigarrenari.



AIURRI



AIURRI

AZOKA

SALMENTA

Egoera eta prezio onean neurri ezberdinetan ipintzen den trona, umea eramateko mendiko motxila eta txirrindarako eserlekua: 690 218 958.

lagunentzako, bi logela, sukaldea, komuna, dutxa... Soustonseko lakuan dago, eta kanpinak denetatik du, igerilekua, tobogana. Informazio gehiago: 658 720 735.

ALOKAIRUA

Mobilhomea alokatzen da Azur-eko kanpin familiar batean (Landak) 4

IRAGAR ZAITEZ

Iragarki txikiak, dohainik. diseinua@aiurri.eus

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 14 eta igandea 15
ARZALLUS: Aita Larramendi, 26. 943 300 913. Andoain.

URNIETA

Larunbata 14 eta igandea 15
CASTILLA: Urbietta, 7. 943 552 941. Hernani. Gaez, bi herrietan: Castilla. 943 552 941. Hernani.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak bikote
Uztailaren 5 ean 7 urte bete zenituzten. Jarrai ezazue lagun handiak izaten! Muxuak etxekoan partetik.



ANDOAIN
Oier
Oier Urreiziti Plazak 11 urte beteko ditu ostiral honetan. Zorionak eta musu potoloa familiaren partetik!



URNIETA
Rodrigo
Zorionak Rodrigo, dagoeneko 15 urte! Muxu handi bat zure osaba-izeba, lehengusu eta amonaren partetik. Askok maite zaitugu.



ANDOAIN
Ur
Uztailaren 10ean bi urte bete zituen etxeko txiki handiak. Muxu handia Xune, amatxo eta aita xoren partetik.

Patziku Perurenaren azken lana
25 €

LEITZALARREKO UNAIK
1683-1771

Eskuratzeko:
bazkuna@larramendi.org
943 300 733 / 656 782 521
Aiurri: Arantzibia 4-5 behea. Andoain

SAIAKERA bildumako aurreko lanak ere eskuragai

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus
webgunea

"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunea. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus
Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora.

Arantzibia 4-5, behea
Etor zaitez bulegora.
Tel.: 943 300 732.

Whatsapp:
619 16 35 37



AIURRI

Saharako haurrari harrera

Andoaingo Udalaren izenean, Jon Zulueta behin behineko alkateak harrera egin zion uda Andoainean igaroko duen Ali Salem Mahfud Saharako haurrari. Ekitaldian Udala ordezkari zabalak parte hartu zuen, etxean 12 urteko haurrari harrera egin dion Iraola Treku familiarekin batera. Hurria-Sahara elkarteak ere harrera ekitaldian parte hartu zuen.

